

FINANTZA ARIKETAK

INBERTSIOEN BALORAZIOA

ENPRESA EKONOMIA SARRERA T.31

FINANTZA ARIKETAK 2.1

Supermerkatu baten jabeak beraien ogia ekoiztu eta saltzea baloratzen ari dira.

Horretarako, labe bat erosi beharko lukete, zeinaren prezioa 18.000€-koa izango litzatekeen eta 3 urteko bizitza erabilgarria izango litzuzkeen. Amortizazioa lineala izango litzateke eta, gainera, bere balio osoa kontuan edukiko litzateke (ez dago hondar baliorik). Jabeek uste dute egunero 500 ogi saldu ahalko liratekeela (urtero 300 egun lan egiten dute). Hau guztia aurrera eraman ahal izateko, langile berri bat kontratatu beharko litzateke (kostua 20.000€ urtero).

Laberako eta fabrikaziorako beharrezkoa den espazioaren kostua 6.000€-takoa da urtero eta, horiei, supermerkatuaren “bestelako kostu finko”-en kontzeptu gisa 5.000 € gehiago inputatuko litzazkioke.

Ogien batez besteko salmenta prezioa 1€ da, eta batez besteko kostu aldakorra 0,7€ (irina, energia, beste lehengaiak).

Prezio zein kostu guztiak egonkorrak dira 3 urteetan zehar. Finantzaketaren batez besteko kostua %5-a da (eguneratze tasa moduan erabiltzen dute). Sozietateen gaineko zerga %25-ekoa da.

- a) Kalkulatu inbertsioaren EBG-a. (0,5 puntu)
- b) Kalkulatu inbertsioaren Pay Back-a. (0,25 puntu)
- c) Kalkulatu inbertsioaren BET-a. Interpolazioa bidez egindako kalkuluetarako erabili itzazu %40 eta %50 tasak. (0,5 puntu)
- d) Jabeek beste aukera bat baloratzen ari dira: suposatuz enpresak inbertsioa gauzatzeko 2.000€-tako subentzioa jasotzen duela hasierako momentuan, eta suposatuz baita ere 3. urtearen bukaeran 3.000 €-tan labea saltzea lortzen dutela (merkatuan diru kopuru hori ordaintzen da 3 urte dituen bigarren eskuko labe baten truke). Bi balizko hauek ontzat hartuko balituzkete, EBG-a handitu ala murriztuko litzateke (ez da beharrezkoa kalkulatzeko)? Erantzuna arrazoitu. (0,25 puntu)

FINANTZA ARIKETAK 2.2

REALE S.A.ren zuzendaritza-taldea negozio-unitate berria irekitzeko aukera balioztatzen dago. Enpresaren hazkundera ekar lezakeen proiektu hau martxan jartzeko aholkularitza-enpresa batek honako proposamen hau aurkeztu dio:

- Hasierako ordainketa 30.000€takoa izango litzateke eta 3 urteetan zehar bere osotasunean amortizatuta egongo litzateke.
- Proiektuak irauten duen bitartean honako aurreikusitako kobrantza eta ordainketa hauek sortuko litzuzke:

	KOBRANTZAK	ORDAINKETAK
1. URTEA	68.000€	55.000€
2. URTEA	92.000€	70.000€
3. URTEA	126.000€	85.000€

- Proiektuaren balorazioa egiterakoan %6ko kapitalaren kostua (eguneratze-tasa) kontuan hartuko da eta enpresaren mozkinetara aplikaturiko zerga-tasa %30koa izango da.

1. Pay Back irizpidearen arabera, zein da aurreikusitako berreskuratze-epea?
2. Balio Eguneratu Garbiaren (BEG) irizpidearen arabera, proiektua onargarria da?
3. Barne Errendimendu Tasaren (BET) irizpidearen arabera, zein da proiektuaren aurreikusitako errentagarritasuna? Zure kalkuluetarako honako deskontu-tasak erabil itzazu: $k=37\%$ eta $k=40\%$.
4. Negozio-unitate berri honen ustiapenerako erositako aktiboak 3 urteen buruan 5.000€engatik saltzeko aukera balego, zein izango litzateke hirugarren urteko Kutxa Fluxu Garbia (KFG)?

FINANTZA ARIKETAK 2.3

Enpresa batek 300.000€tan baloratuta dagoen makina berri bat erostear dago. Erosketa egin aurretik aztertu egin nahi du inbertsio proiektua. Finantzaketaren kostua %8-koa dela kalkulatu dute.

Urtea	Kobrantsak	Ordainketak
2012	70.000	10.000
2013	75.000	12.500
2014	85.000	17.500
2015	95.000	22.500
2016	100.000	25.000
2017	105.000	55.000

- 1) Zein da inbertsio proiektuaren berreskuratze epea?
- 2) Zein da inbertsio proiektuaren BEG-a?
- 3) Zein da inbertsio proiektuaren BET-a?

FINANTZA ARIKETAK 2.4

1.- HASIERAKO DESPOLTSAPENA= 300.000 FINANTZAKETAREN KOSTEA: %8

KOBRANTZA 1= 90.000	ORDAINKETA 1= 50.000
KOBRANTZA 2= 100.000	ORDAINKETA 2= 55.000
KOBRANTZA 3= 130.000	ORDAINKETA 3= 65.000
KOBRANTZA 4= 170.000	ORDAINKETA 4= 70.000
KOBRANTZA 5= 170.000	ORDAINKETA 5= 70.000
KOBRANTZA 6= 170.000	ORDAINKETA 6= 70.000

2.- HASIERAKO DESPOLTSAPENA= 300.000 FINANTZAKETAREN KOSTEA: %8

KOBRANTZA 1= 12.600	ORDAINKETA 1= 10.000
KOBRANTZA 2= 27.500	ORDAINKETA 2= 15.000
KOBRANTZA 3= 37.600	ORDAINKETA 3= 20.000
KOBRANTZA 4= 85.000	ORDAINKETA 4= 30.000
KOBRANTZA 5= 220.000	ORDAINKETA 5= 40.000
KOBRANTZA 6= 270.000	ORDAINKETA 6= 45.000

Aztertu aurreko 2 inbertsio proiektu ezberdinak. Zein izango litzateke proiektu aukeratua 3 erizpide ezberdinak aplikaturik? (PAYBACK, BEG eta BET)

FINANTZA ARIKETAK 2.5

BASQTUBES, S.A. enpresan petrolio, petrokimika eta nuklear industrietan erabiltzen diren altzairu herdoilgaitzezko soldadura gabeko hodiak ekoizten dituzte.

Enpresa aeronautika baten eskaera berri bat jaso dute eta makinaria berria behar dute eskaerari aurre egin ahal izateko; beraz, erabaki bat hartu behar dute: edo makinaria berri hori erosi edo leasing-aren bitartez erabili.

Makinaria erosten bada, kostua 300.000 €-koa izango litzateke; inbertsioaren iraupena 4 urtekoa izango litzateke, eta aurreikusten diren kobrantzak eta ordainketak hurrengoak izango lirateke:

Urtea	Kobrantzak	Ordainketak
2012	75.000	150.000
2013	150.000	100.000
2014	175.000	100.000
2015	200.00	100.000

Leasing-a erabiltzea aukeratzen bada, ez litzateke beharrezkoa izango hasierako ordainketa bat egitea, baina ordainketak handiagoak izango lirateke; BEG-aren balioa kasu horretan 62.655 €-koa izango litzateke. Kapitalaren kostua %8-koa izanik, erantzun hurrengo bi galderei (18 eta 19).

Arrazoitu zein erantzun den zuzena eta zein okerra:

- 1) Enpresak likidezari lehentasuna ematen badio, leasing-a aukeratuko du.
- 2) Enpresak lehentasuna likidezari nahiz errentagarritasunari eman, makinaria erostea aukeratuko du.
- 3) Bi aukera horiek ez dira bideragarriak, bietan BEGaren balioa hasierako ordainketa baino txikiagoa delako.
- 4) BEGaren arabera, enpresari berdin zaio inbertsio bat edo bestea aukeratzea.
- 5) Aukeratzeko metodoa (BEG edo Payback) edozein izanda, leasing-a aukeratuko du.
- 6) BET metodoaren arabera:
 - a. Inbertsio-aukera biak ez dira bideragarriak enpresarentzat.
 - b. Aukeraketa optimoa makinaria erostea izango litzateke.
 - c. Leasing-aren aukeraketa bideragarria izango litzateke, BETaren balioa, kasu honetan, %8a baino handiagoa delako.
 - d. Makinaria erostea bideragarria izango litzateke enpresarentzat, kasu honetan, BETaren balioa zero baino handiagoa delako.